

## URTE BERRIA



Urte au izango da  
guchi gora bera,  
on ta chartasunean  
besteak bezela.

Danboliña badegu  
ta poztu gaitezen,  
zergatik euskaldunak  
gaituben alaitzen.

Eta dantzatzen danak  
nun dan danboliña,  
siñale du buruban  
ez daukala miña.

Neguban egun motza  
elurretakoa,  
udan luziak eta  
eguzki beroa.

Batzubek ilko dira  
ta besteak bizi,  
iltzen diran aientzat  
erregutu beti.

Langille kaletarrak  
egiñik astelen,

ez dira sekuletan  
arkituko zuzen.

Baserritarrak ere  
badabiltz, echian  
dituzten beren lanak  
egiñ bearrian,  
feritikan ferira  
churrut eta churrut,  
echiak egingo du  
beriola purrut.

Arrantzaliak berriz  
sagardotegitik,  
ez du beñere egingo  
arrantza jatorrik.

Anaitasun onean  
bear gera nastu,  
euskaldunak gerala  
ez dezagun aztu.

Eta guztiyen gañez  
gure Jaungoikoa,  
izan zazu guretzat  
urte bat gozoa!

MARZELINO SOROA.

